

Lehen Hezkuntza 1º - 6º LH

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea / Ondoren 1

IKASGAIA	IKASGAI ERLAZIONATUAK	GAI EKOSOZIALAK	INGURUMEN-POLITIKAK
Natura, gizarte, kultura ingurunearen ezagutza	➤ Heziketa Fisikoa 	➤ Ekomenekotasuna ➤ Biosferaren funtzionamendua ➤ Zibilizazio krisia	➤ Biodibertsitatea ➤ Ohitura jasangarriak

Ikas egoeraren markoa


TESTUINGURUA. La Arboledako ingurunea balio historiko, kultural, natural eta hezitzailea duen espazio baten parte da. Urte luzez burdinaren ustiapen-gunea izan zen, eta horrek paisaia eraldatu zuen. Denboraren poderioz, natura eta gizakiaren laguntzarekin, paisaia berreskuratu da. Gaur egun, gure ekintzek ingurunea nola aldatzen duten eta nola birsortu daitekeen erakusten duen adibide garbia da. Ikasleek **Ekoetxea Meatzaldea - Peñas Negras** bisitatuko dute, ingurumen-zentroa eta **Meatzaldeko Babestutako Biotopora** sartzeko atea. Ingurune interesgarrien ondoan dago kokatuta, hala nola “El Laberinto” izeneko paisaia karstikoa edo Loiolako harana. Zentroaren bisitaren bidez, inguruko balioak, iragan meatzaria eta natura etorkizunerako kontserbatzeko garrantzia ezagutuko dituzte.

Abiapuntua

Peñas Negrako Ekoetxea Meatzaldeko Biotopo Babestuaren sartzeko atea da. Zer eskaintzen digu zentro honek? Zer ikas dezakegu inguruko ingurumenaz? Zer mezu helarazi nahi dizkigu naturari, historiari eta ingurumenaren zaintzari buruz?

AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA.

- Bisita baino lehen, ikasleek jarduera dibertigarri batzuk egingo dituzte bisitatuko duten ingurunea apur bat ezagutzeko.
- Esperientzian zehar, zentroko erakusketa laburki bisitatuko da, ikus-entzunezko bat proiektatuko da ingurua ezagutzeko, ulertzeko eta ikasteko, eta Ekoetxea Meatzaldea – Peñas Negrasen inguruko paisaia aztertuko da.
- Ondoren, ikasgelan, ikasleek hainbat dinamika egingo dituzte ikusitakoa eta bizitakoa gogoratzeko, eta ingurumenaren zaintzan eta hobekuntzan inplikatu beharra ulertzeko.





HELBURU KOMPETENTZIALAK


- Gizakiak bere ingurunean duen eragina ulertzea.
- Naturaz gozatzea, haren parte garena eta haren egoera onaren mende gaudela ulertuz; beraz, errespetatu egin behar dugu.
- Ingurumenarekiko errespetuzko balioak garatzea.
- Meatzaldeko ingurune naturala eta kulturala ezagutzea, ikus-entzunezko, erakusketa eta paisaia-baliabideen bidez.

Curriculumaren zehaztapenak

NATURA, GIZARTE, KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA (LEHENENGO ZIKLOA)


FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK CP STEM KD KPSII HK EK KAKK	1, 3 1, 2 1, 2, 4, 5 1 4 1, 4 1 1, 2	5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.	5.2 Ingurune natural, sozial eta kultural hurbileko elementuen arteko konexio erraz eta zuzenak ezagutzea, modu gidatuan. 5.4 Ondare naturala eta kulturala errespetatzeko eta gozatzeko jarrerak erakustea, eta zaintzea eta kontserbatzea beharrezkoa den ondasun komun gisa aitortzea. 	A. Kultura zientifikoa 2. Bizitza gure planetan - Izaki bizidunen egokitzapenak beren habitatera, beren beharrak asetzen dituzten leku gisa ulertuta. - Izaki bizidunak eta haiek bizi diren ingurunea zaintzeko eta errespetatzeko ohiturak. - Gizakiaren ongizate fisikoarekin lotutako ohitura osasungarriak: higijena, elikadura askotarikoa eta orekatua, ariketa fisikoa, atsedena eta gorputzaren zaintza, gaixotasunei aurrea hartzeko bitarteko gisa. 4. Kontzientzia ekosoziala - Gure ingurunea ezagutzea. Paisaia naturalak eta paisaia gizatiartuak, eta horien elementuak. Ingurunearen gaineko giza ekintza eta horren ondorioak. - Erantzukizun ekosoziala. Ondasun komunak kontserbatzeko, hobetzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko ekintzak. - Bizi-ohitura jasangarriak.
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1, 2, 3, 5 1, 2, 3 1, 2, 5 2, 3, 5 4 1, 2, 3, 4 1, 2, 3 1	6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarriz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.	6.1 Bizi-ohitura jasangarriak erakustea, planetako bizitza mota guztiak errespetatzeko, zaintzeko eta babesteko beharraz jabetuta. 6.2 Eremu hurbileko elementu eta baliabideekin lotuta, esplizituki eta adibideen bidez identifikatzea pertsonen bizitzak beren ekintzekin duen erlazioa. 6.3 Ingurune hurbileko arazoak banaka eta taldean antzematea eta soluzio posible batzuk proposatzea.	

NATURA, GIZARTE, KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA (BIGARREN ZIKLOA)

FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	GINARRIZKO JAKINTZAK
HKK CP STEM KD KPII HK EK KAKK	1,3 1,2 1,2,4,5,6 1 4 1,4 1 1,2	5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeo elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsua eta iraunkor baten bidez.	5.2 Natura-, gizarte- eta kultura- ingurunekeo elementuen arteko konexio errazak identifikatzea, eta ezartzen diren harremanak ulertzea. 5.4 Natura- eta kultura-ondarea balioestea eta babestea, guztien ondasuntzat jotzea, ondare horretaz gozatzeko errespetuzko jokabideak hartzea eta ondare hori kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak proposatzea.	A. Kultura Zientifikoa 2. Gure Planetako bizitza - Gizakiaren eta ekosistemen arteko harremana (hurbiletik hasi eta globalera arte), gizartearen beharrak asetzeko. Gure planetako baliabide naturalen erabilera onak eta txarrak, eta horien ondorioak. - Biodibertsitatea. Biosferaren orekan biodibertsitateak duen eginkizuna. Biodibertsitatea mehatxatzen duten faktoreak (habitaten suntsipena, espezie inbaditzaileak, klima-aldaketa, kutsadura, baliabideen gehiegizko ustiapena...). C. Sozietateak eta lurraldeak 1. Gaur egungo munduaren Erronkak - Paisaia, erliebea: paisaien aniztasuna. 2. Gizarteak denboran zehar - Natura- eta kultura-ondarea. Naturagune eta kulturagune babestuak. Nola erabili, zaindu eta kontserbatu. 4. Kontzientzia Ekosoziala - Krisi ekosozial globala. Giza ekintza eta horrek inguruko paisaietan duen eragina. Natura zaintzea eta babestea. - Ekosistema naturalen eraldaketa eta degradazioa. - Giza ekintzarekiko erantzukizun ekosoziala. Banakako eta taldeko erantzukizunak. - Bizi-ohitura iraunkorrak.
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3,5 1,2,3 1,2,5,6 2,3,5 4 1,2,3,4 1,2,3 1	6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarriz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.	6.1 Ea kritikoki aztertzen duen pertsonen bizitzak ingurunekeo elementuetan eta baliabideetan egiten dituen ekintzekin duen harremana, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboez eta negatiboez jabetuz eta bizitza bere forma guztietan errespetatuz. 6.2 Planeta, pertsonak eta ingurunea zaindu, babestu eta errespetatzearekin bat datozen bizi-ohitura iraunkorrak praktikan jartzea. 6.3 Ea ezagutzen dituen inguruko arazo ekosozialak, eta ea proposatzen dituen, modu kooperatiboan, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketen ekintzak.	

NATURA, GIZARTE, KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA (HIRUGARREN ZIKLOA)

FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	GINARRIZKO JAKINTZAK
HKK CP STEM KD KPII HK EK KAKK	1, 3 1, 2 1, 2, 4, 5 1 4 1, 4 1 1, 2	5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeo elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.	5.2 Natura-, gizarte- eta kultura ingurunekeo elementuen arteko konexio errazak egitea, eta elementu horien artean sortzen diren harremanak ulertzea. 5.4 Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak balioestea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatzen dituzten proposamen eta ekintzen bidez.	A. Kultura zientifikoa 1. Jarduera zientifikorako hastapenak - Ikerlanaren berezko estrategiak, honako hauekin lotutako ohiturak eta jarrerak garatzen laguntzen dutenak: jakin-mina, interesa, zorrotasuna eta zehaztasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia lan pertsonalean, eta jarrera arduratsu eta aktiboa zereginetan, banakakoetan zein taldekoetan; genero-ikuspegia kontuan hartuta. 2. Bizitza gure planetan - Jokabide osasungarri eta jasangarriak, osasun fisiko, emozional eta sozial egokia sustatzen dutenak. Kontsumo arduratsua eta jasangarria, aisialdiaren kudeaketa, gailu digitalen erabilera egokia. - Erliebea eratzeko eta modelatzeko oinarrizko prozesu geologikoak. Arroken eta mineralen oinarrizko sailkapena. Baliabide geologikoen erabilerak eta ustiapen jasangarria. C. Gizarteak eta lurraldeak 1. Egungo munduaren erronkak - Ekosistema nagusiak eta haien paisaiak. - Ingurune naturala. Irudikapen grafikoa eta bisuala. 2. Gizarteak denboran zehar - Natura- eta kultura-ondarea ondasun eta baliabide gisa; haren erabilera, zaintza eta kontserbazioa.
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3,5 1,2,3 1,2,5 2,3,5 4 1,2,3,4 1,2,3 1	6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarriz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.	6.1 Giza interakzioaren kausak eta ingurunean dituen ondorioak kritikoki aztertzea, alderdi soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuta, eta problemak identifikatuta. Bizitza jasangarriaren kontzientzia transferitzea, planetak dituen arazoentzako irtenbideak bilatzeko eta bere ingurunean jendaurrean jakinarazteko. 6.2 Jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko proposamenak bilatu, kontrastatu eta ebaluatzean, banaka eta taldean soluzio arrazoituak emanda.	




HEZIKETA FISIKOA (LEHENENGO ZIKLOA)

FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
STEM KPSII HK EK	1, 2, 5 1 4 1	6. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorretan jarduteko aukerak aurkitzea eta baliatzea, zenbait natura- eta hiri-ingurune jardunaren testuinguru gisa baloratzeko eta ingurune horiek zaintzen eta hobetzen laguntzeko.	6.1 Ekintza motorrak egitea, ikasleen motrizitatea ikastetxearen inguruko natura- eta hiri-inguruneetako jardueren ziurgabetasunera egokituz. 6.2 Natura- eta hiri-inguruneaz gozatzea, horiekiko errespetu, zaintza eta kontserbazioko jarrera hartuz, jolas eta aisialdiko jardunetan.	E multzoa - Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak - Landa eta hiri-inguruneetako jardura fisikoak. F multzoa - Arte- eta adierazpen-egoera motorrak - Hurbileko espazioaren esplorazioa: objektuekin eta objekturik gabe, zenbait norabide eta mailatan. G multzoa - Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak - Osasun fisiko: bizimodu aktiboaren ondorio fisiko onuragarriak. Elikadura osasungarria eta hidratazioa. Jardun motorra prestatu: kirol-jantziak eta gorputz-higienarako ohitura orokorrak.


HEZIKETA FISIKOA (BIGARREN ZIKLOA)

STEM KPSII HK EK	1, 2, 5 1 4 1	6. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorretan jarduteko aukerak aurkitzea eta baliatzea, zenbait natura- eta hiri-ingurune jardunaren testuinguru gisa baloratzeko eta ingurune horiek zaintzen eta hobetzen laguntzeko.	6.1 Ekintza motorrak egitea, ikasleen motrizitatea ikastetxearen inguruko natura- eta hiri-inguruneetako jardueren ziurgabetasunera egokituz 6.2 Jardun motor segurua garatzea natura- eta hiri-inguruneetan.	E multzoa - Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak - Landa-inguruneetako jardura fisikoak. - Hiri-inguruneetako naturaguneak: erabili, gozatu eta mantendu. G multzoa - Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak - Gizarte-osasuna: jardura fisiko, ohitura eta alternatiba osasungarri gisa, aisialdi modu kaltegarrien aurrean. Entzute aktiboa eta negoziatio-estrategiak testuinguru motorretako gatazkak ebazteko. Egoera motorretan bizikidetzaren kontrako jokabideak, diskriminatzaileak edo sexistak baztertu.
---------------------------	------------------------	---	--	--



HEZIKETA FISIKOA (HIRUGARREN ZIKLOA)


FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
STEM KPSII HK EK	1, 2, 5 1 4 1	6. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorretan jarduteko aukerak aurkitzea eta baliatzea, zenbait natura- eta hiri-ingurune jardunaren testuinguru gisa baloratzeko eta ingurune horiek zaintzen eta hobetzen laguntzeko.	6.1 Ekintza motorrak natura- eta hiri-ingurunekeo jardueren ziurgabetasunera efizientziaz egokitzea. 6.2 Ikastetxearen inguruko natura- eta hiri-inguruneak jarduera fisikoa egiteko eskaintzen dituen aukerak baloratzea. 6.3 Jarduera fisikoa egitean segurtasun-neurriak hartzea.	E multzoa - Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak - Landa eta hiri-inguruneetako jarduera fisikoak. - Natura-ingurunean egindako desplazamendu arrazoitua eta hausnartua, kokapenerako informazio eta erreferentzia egokiak hartuz (plano batean markatutako ibilbide bati jarraitu). - Jarduera horietarako berezko materiala eta ekipamendua, segurtasuneko barne. G multzoa - Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak - Ingurunearen zaintza, komunitaterako zerbitzu gisa, natura gunean egiten den jarduera fisikoan.



Ikuspegi ekosoziala

IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- * Giza ekomendekotasuna barneratzea. Bizitzaren egituraren parte garena konturatzea.
- * Biosfera gurtu. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen delako ideiarekin ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentrismotik ekozentrismora pasatzea.
- * Naturak ingurunera egokitzeko eta eraldatzeko, eta, hala, hedatzeko, aurkitu dituen irtenbideak gizakienak baino askoz hobekak direla balioestea. Horregatik, giza ekintzak ekosistemen funtzionamenduaren barruan txertatu behar ditugu. Biomimesia bizitza-estrategia duin egoki gisa baloratzea.
- * Gaur egungo espezieen desagertze-tasak eta ekosistemen degradazioa geldiarazi beharreko premiazko arazo gisa onartzea eta nola egin jakitea.



EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- * Izaki bizidun guztiak elkarri lotuta daudela onartzea.
- * Bizitza osoari balioa ematea.
- * Beren ingurune naturalean bizi diren izaki bizidunen aniztasunaren edertasunari balioa ematea.
- * Bizitza osoaren iraupenari balio handia ematea, kulturalki arbuioa eragiten diguna barne.
- * Natura eboluzionatzeko eta Lurra nahierara aldatzeko gai izan dela nabarmentzea, adibide jakin bat jarritz.



- * Gaur egungo biodibertsitate masiboaren galeraz ohartaraztea.
- * Izaki bizidun bat galtzeak beste izaki bizidun batzuei nola eragiten dien erakustea.



OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- * Ekomendekotasunaren kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren laguntzarik gabe.
- * Natura zaintzearen garrantzia.
- * Edertasuna izaki bizidunen aniztasunean eta oreka ekosistemikoetan.
- * Naturarekiko lotura emozionala.
- * Oxigenoa: haren prestakuntza eta bizitzarako duen garrantzia
- * Birziklatzea naturan.



- * Ekosistemak berreskuratzeko naturan oinarritutako metodo batzuk azaltzea. Adibidez, espezie autoktonoekin birpopulaztea.
- * Bioaniztasunaren galeraren ondorioak: gaixotasun berriak, polinizazio faltagatik uztak galtzea, izurriteak, lurraren emankortasuna galtzea, etab.
- * Biodibertsitatearen galeraren arrazoi nagusiak: habitaten eta ekosistemen aldaketa. natur baliabideen kutsadura eta gehiegizko ustiapena.

Lehen Hezkuntza 1º - 6º LH

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea / Ondoren 1

IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- * Arazoen sorburu izango diren krisi ekologiko eta sozialerako konponbideak baloratzea.

EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK


- * Identitate bat eraikitzea, ez bakarrik indibiduala, baizik eta kolektiboa ere izango dena eta naturaren zati gisa ulertuko dena.
- * Krisi ekologikoa eta soziala ingurune hurbilenean konpontzen lagunduko duten ekintzak egitea.

OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- * Identitatea eraikitzea, ez bakarrik banakako zerbait bezala, baita kolektiboa eta identitate ekozentrikoa ere (ekosistema baten zati bezala).

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentzia da FUHEM.





Metodologia



ESTRATEGIA

EREDU PEDAGOGIKOA:

Araoetan
oinarritutako
ikaskuntza

Gamifikazioa

Ikaskuntza
kooperatiboa



ESTRATEGIA EKOSOZIALAK

Ekintzarako
ikaskuntza

Ezagutzaren
eraikuntza
kolektiboa

Ikaskuntza
aktiboa



TEKNIKAK

OHIKOAK:

Ikus-entzunezkoak

Entzute kolektiboa

Azalpenak talde
handietan

Beste batzuk

EZOHIKOAK:

Beste batzuk:
Ingurune naturala
/ Ekoetxea

